

bidegileak



Jean Saint-Pierre *Anxuberro* (1884-1951)

Egilea:

PIARRES (XARRITON)

Etxelekukoak

IX. mendearen azken laurdenean, Aturri eta Errobi Lapurdiko bi ibai nagusiek besarkatzen duten Ibaiartea ala *Mesopotamia* deitu eremu malkartsuaren Milafranga herriko Etxelekuan eta Hiriberrian bizi ziren izen bereko Saint-Pierre bi familia.

Saint-Pierre izen hori, auzo herrian dagoen Hiriburu edo frantsesez Saint-Pierre d'Irube izenetik zetorren menturaz.

Etxelekuko Jean Saint-Pierre eta Catherine Antchuberro, senar-emaztek bada, Hargin Karrikako lehen bide kurutzearen gain batean zuten beren



Jean Saint-Pierre Anxuberro (1884-1951)

egoitza, gaur egun *Loretegia* deitu etxe berri batek ordezkatu duena: osoki euskaldunak ziren eta, bizipidez, laborariak. Bazituzten bederatzi haur: lau alaba eta bost seme.

Hona, lerro-lerro, zein ziren ume horiek:

1. *Piarres*, 1871ko otsailaren 22an sortua, Marie Darricarrèrekin ezkondurik 1901ean, 10 seme-alaba izan zituzten. Haietarik bi alaba Janeta eta Denise, bizi dira oraino Parisen.



Saint-Pierre gotzainaren *Etxeleku*a sortetxean beste batek egindako *Loretegi* etxea

2. *Maria*, 1873ko urtarrilaren 11n sortua, Martin Doyhenartekin ezkondua 1902ean, eta Kanadara joan ondoan, han hila.
3. *Josep* (paperetan Jean ekarria), 1875eko urriaren 1ean sortua, Kanadako itzulia egin-eta, Joana Broussain Legarrekoarekin 1913ean ezkondurik Milafrangan bizi izana eta seme alabak izanik, 1943an sorterrian zendua.
4. *Janpiarre* edo *Panpili*, 1877ko ekainaren 14ean sortua, fraide trapista bizi izanik, La Meilleraye, Britainiako komentuan zendua, 1951ko otsailaren 14ean.
5. *Suzana*, 1879ko urtarrilaren 31ean sortua, Afrikako Serora Xurietan ama Florence izenez ezaguna. Lavigerie kardinalearen Baionako sortetxera serora horien erakartzeko, anaia apezaren laguntzarekin, behar ziren urratsak ibili zituen, 1926an,

nahiz geroztik etxe hori saldu izan den. Ama Florence aldiz, Afrikako Ruandan serora xurien buruzagi zelarik, han hil zen, 1944ean.

6. *Gaxuxa*, (paperetan Marie Louise ekarria) 1881eko otsailaren 13an sortua, Jean Paul Chicoy-Lavignekin 1908an ezkondua eta 1957an Baionan zendua.
7. *Janbatista*, 1882ko uztailaren 17an sortua: 17 urtetan Txilera joanik eta Carmen Garciarekin ezkondurik, 1930 irian bere lau alabekin sorterrira itzulia. Hor kokatu zen eta zendu 1941ean. Haren bi alaba bizi dira oraino: Bat Adrienne Martiarena alarguna Milafrangan berean eta bestea Renée Bétat alarguna, Biarnoko Gan herrian.
8. *Joanes*, 1884ko martxoaren 28an sortua, guk hemen aipu duguna eta etxean Joastipi edo Papiti deitzen zutena. Afrikan zenbait urte apezpiku egonik, 1937an sorterrira itzuli zen, Baionan 1951an zendu eta Milafrangako elizaren apiriko azpian ehortzi.
9. *Janeta*, (paperetan Véronique ekarria) 1889ko abuztuaren 13an sortua, senarra, Etcheverry, gerlan hilik, alaba bakarra 24 urtetan galdurik, Paben zendua.

Joastipi Etxeleku mutiko erne eta hartze onekoa atera zen. Bere lehen eskolak aitasorekin egin omen zituen, ezen aitaso horrek zahartu-eta ere, zerbaitetako on izan nahiz, auzoko haurrak biltzen omen zituen, erakusten ziela,



Milafrangako eliza barrutik



Saint-Pierre-ren sortetxetik Milafrangako eliza

katiximarekin batean, euskaraz irakurtzen eta izkiriutzen.

Schlaegel jaun erretoreak beretter hartu zuen Joastipi, eta honek, 11 urtetan ama galtzeko bihozmin handia izan zuelarik, berak ere apaiztu nahi zuela salatu zion jaun erretorari.

Etxeakoak ez ziren batere harritu: Joastipiren anaia Panpili ere trapista edo beneditar xurietan sartua baitzitzaien eta, arreba Suzana berriz Afrikako serora xurietan.

Zer nahi den, Marty jaun bikarioarekin frantses eta latin apur bat ikasi ondoan Etxelekuko beretterra Larresoroko apezgaitegira joan zen, 1896ko urrian, bosgarrenetik hasteko, 12 urte zituela.



Anaia Panpili fraide trapista 17 urtetan

Etxelekuko apaizgaia

Milafrangako pottoka hezgaitzak lanak izan zituen ezin etxekotuz Larresoron. Leon Lassalle bezkoiztar ikaskidearen arabera, ikastegiko ixiltasuna zuen gehienik partida Saint-Pierre gazteak. Eta menturaz zailtasunak ere aurkitu zituen lehen urteko ikasgaietan. Baina laster, Etchart aldudar jaun apaizaren laguntzarekin lehen zailtasunak gainditu zituen, bere ikaskideak aitzinatu eta, geroztik, eskoletako aitzindaritza hori atxiki bururaino.

Erran behar da irakasle bikainak aurkitu zituela Larresoron: hala nola, letretan, Frantziako ikastegi anitzetan berak egin eskuliburuengatik ezaguna zen Domecq jaun apaiza eta Manex Hiriart-Urruty, hazpandar irakasle guziz miretsia eta euskal kazetari lehena.



Panpili trapista zaharturik

Filosofian, berriz, Arnaud Abbadie buruzagia bera izan zuen maisu. Jaun honek bestalde, ba omen zekien, lanarteetan, Beltxiño deitzen zuen bere ikasle gaztea Ezkandako mahasti aitzurrera berekin eramaiten, zainen hezteko gisan; non ez zuen beste lagunekin pilotan eraunstera bidaltzen. Pilotan ere jokolari trebea omen baitzen, bere adiskide Elissalde Zerbitzari pilotazale handiaren arabera.

Dena den, Milafrangako apezgaiak batxilergoa iragan zuen errazki, 18 urtetan, 1902ko udan eta, udazkenean, Baionako seminario nagusian sartu zen, filosofia eta teologia ikasketei lotzeko xedearekin. 1906an ordea, Frantziako seminario guziez jabetu baitzen gobernua,

Baionako apezgaiak ere, beste guztiak bezala, kanporatuak izan ziren beren ikastetxetarik.

Buruzagiek ordea, Jean Saint-Pierre lagunetarik bereizi zuten eta Tolosako Unibertsitatera bidali, letretako lizentziaren prestatzera, baina ikasle gaztea, hamar hilabete barne, etxera itzuli zitzairen, bere diploma eskuraturik.

Beste urte bat oraino egin zuen, Baionako teologo lagunekin, Nayeko hirian aterpetzen zituen komentu zaharrean eta Gieure jaun apezpikuak apaiztu zuen apezpikutegiko kaperan, 1908ko irailaren 13an.

Eta bere lehen meza eman orduko buruzagiek bidali zuten Erromara, teologiako goi ikasketen egitera Gregorianako aita jesuiten Unibertsitatean.



Baionako Seminario Nagusian irakasle izan zen



Baionako apezpikutegia, 10 urtez egin zuen lan hor

San Andreseko apaiz

Ez dugu erraite beharrik, ez zituela alferrik eramán Etxelekuko jaun apaizak Erroman iragan zituen 1908tik 1910 artinoko bi ikasturteak, teologiako lizentzia eta doktoretza eskuraturik itzuli zenaz geroz Baionara. Eta handik landa, 1910eko udazkenean, Gieure Baionako jaun apezpikuak san Andres elizako bikario izendatu zuen bere doktor berria.

Egundainotik anitz euskaldun bildu dituen Baionako auzotegi horretan iragan zituen beste bi urte haietaz, guk ez diogu behinere deus entzun erraiten bikario ohiari berari.



Baionako San Andres eliza honetan hasi zituen apaiz lanak

Piarres Lafittek aldiz dio *apaiz lanetan hasi zela, kartsu kartsua, doktor teologo berria*. Bizkitartean susmoa badugu, *apaiz-lan* horietarik landa, beste alor batzuetara ere lerratzen zela ordukotz, izenorde batekin edo izenik gabe, Joastipi Etxeleku, bere irakasle ohi Manex Hiriart-Urruty kalonjearen ildotik, kazetaritzara, behin edo beste.

1911ko urriaren 4eko *La Semaine de Bayonne* astekarian argitaratu zen adibidez, izenik gabeko artikulutxo bat, salatzen zuena, malezia apur batekin, jaun handi baten ibilbidea:

Azkue deitu bizkaitar apez euskaltzale famatuak, euskal kantu biltzen zebilelarik Baxenabarre eta Lapurdiko bazter batzuetan, entzuna dugu eztabaida gogorrak izan dituela Iparraldeko presuna ohoragarri batzuekin, erakutsi omen baitu horrela gure gizonak, zenbatetaraino espainoldua eta frantsesaren etsai bilakatua den.

Nor ere baitzen lerro horien egilea, beste artikulua bat, aitzinekoa iduria, atera zuen Manex Hiriart-Urrutyk berak, bi egun berantago, *Eskualduna* astekarian. Eta bi artikulua horien ondorioz, Azkue besapean birilgaturik bere paperak, Senperetik Bilbora itzuli zen.

Ondoko urtean, berriz bere kantu bilketari lotu nahi izan zelarik, «San Andreseko apez gazteñoak Lapurdi aldeko bideak gaiztotu ziezazkion beldurrez», Azkue gaizoak bere arartekotasuna eskatu zion Pierre Broussain adis-



Baionako katedrala

kideari eta horrela bururatu ahal izan zuen bere lan ederra.

Xuxenak ote ziren Azkueren susmo horiek? Ez genekike. Dakiguna da 1919an, Euskaltzaindia sortu zenean, Jean Saint-Pierre hori bera, *Axunberro* izenordearen itzalean, Bilboko *Euzkadi* egunkarian argitaratu zituen artikuluetan Euskaltzaindiaren zirikatzen ari izan zela, nahiz bestalde harreman onak bazituen Hegoaldeko abertzale askorekin, eta gehiago oraino, gizon horrek berak onartu zuen lehen aipalditik beretik euskaltzain urgazle izatea. Geroxeago oraino, 1949ko

azaroaren 25ean, Pierre Lafitte, René Lafon, Louis Dassance, Manuel Lekuonaren konpainian, Jean Saint-Pierre *Axunberro* apezpikua ikusi zen, R. M. Azkue euskaltzainburuaren inguruan, euskaltzain oso agertzen.

Artetik erraiteko, Euskaltzaindiarekilako harremanetan geroago ere Broussainen arartekotasuna baliagarri izan zuten Azkuek eta Hiriart Urruty zenaren inguruko Adéma de Saint Jayme eta Saint Pierre iduriko lagun batzuek.

Dena den, san Andresen bi urte egin orduko, 1912ko uztailean, Hazparneko aita misioner-



Saint-Pierre eta beste euskaltzain berrien izenak ematen ditu *Eskualduna* astekariak

tetara izendatu zuten Saint-Pierre apaiza eta hor erakutsi zituen, bere jite lagunkinaz eta umore onaz bestalde, J. Athor lankideak gogoratu zuen bezala, «bere dohain ederrak, bere bihotz ona, bere apaltasuna, bere botz ozena, mihi zalua, begi ernea eta bere euskara garbi eta erraza».

Geroztik bera ezagutu dugun guztiek miretsi dugu haren mintzatzeko erraztasun harrigarria. Hizlari milafrangarrak talendu hori zor zien, dudarik gabe irakasle izan zituen Arbelbide, Abbadie, Bastres, Larregain bezalako predikariei bai eta ere, Piarres Lafitten arabera, artoski landuak zituen XIX. mendeko

Duhalde, Duvoisin, Diharassarry idazle lapurtar klasikoei eta, oroz gainera, Axularren eza-gutza sakonari.

Haren paperetarik ikus daitekeenez, Hazparneko misionestegian ikasi zuen bestalde Zibero-ko hiztegi bereziaren menderatzen, behar orduan, Barkoxeko entzuleak behar orduan xoratzeko gisan.

Ez zuten bizkitartean luzaz Hazparnen utzi gure predikari gaztea: baizik eta morala erakasle bat eskas zutela Nay-eko seminario handian, 1914ko hastapenean, hara deitu zuten Saint-Pierre eta, atsegin hartu ere ikasle gehienek; ez erraiteko guztiek.



Hazparneko misionisten kalbarioan Saint-Pierre predikari

Apaizgaiak alabaina, Biarno haraindian ziren orduan kokatuak, Baionatik kanporatuak izanez geroz, 1906an, baina euskaldun anitzek ezagutzen zuten jadanik beren irakasle berria, haren begitarte arraia beren elizetan ikusirik, haren mintzo suharra behin baino gehiagotan entzunik, eta beraz hartaz loriaturik zeuden, aitzinetik. Xalbat Arotzarena Zepuru haren ikasle ohi batek hain polliki idatzi zuen bezala:

Irakaspenarentzat ez zitekeen izan irakasle egokiagorik: Bihotzaren itzuli-mitzuliak argitu behar dituen irakaspena, gizonaren harat-honatak, gogoaren goiti-beheitiak bidatu behar dituen jakitatea, ez da liburuetan osoki eta errotik har daitezkeen jakitate haietarik. Gizonekilakoa gizonekilan behar da eiki ikusi eta ikasi. Liburuek eman ohi dituzte printzipioak, baina jendartean bizitzeak du irakasten noiz, non eta nola diren printzipioak zuzen kudeatzen ahal.

Gizonen eta bihotzen berri nornahik bezain ongi bazekien Saint Pierre jaun apaizak: Liburuekin borroka ari izana zen; gizonen artean ibilia zen, adimendua zorrotzik, begiak ernerik. Bazuen ikasirik; bazuen ikusirik; ikusi bezainbat ikasi; ikasi bezainbat ikusi; hori baitzen ere haren jitea.

Eta ikasturtearen bigarren partean, martxo irian, lotu zitzaion sail berriari irakasle berria, irakasmolde berria ekarri zuen berekin: Orduarte latinez egiten baitzen osoki irakaskuntza guztia, hots eskuliburua bera eta haren komentario guztiak Saint-Pierre hasi zitzaion ikasle frantses garbian iruzkintzen latinezko liburuaren xehetasun guztiak.

Ez omen zen bazter-bidesketan galtzen, baina zuzen eta zabal irekitzen zuen bidea.

Egia handiez eta haien gibelondo gorenez mintzo zelarik, xoraturik zeuden ikasleak, hari beha, eta orena laster iragana zen.

Baina gero, kasu bakoitxaren itzal argiak bere izpiritu zorrotzarekin zilatzen zituelarik, iduri omen zuen barnegi sarturikako ezagutza horrek berak, herabeturik jartzen zuela irakaslea. Bazekien menturaz, gizonaren urrats eta egintza gehienetan, gaizkia eta ongia nahas direla. Eta gaizkia bortizkiegi kenduz, ez ote zion ongiari ere min egiten, lotsa batek hartzen bezala zion bihotza.

Ez zuen zorigaitzez anitz iraun irakastaldi horrek, bospasei hilabeteen buruko, oporrak etortzearekin, abuztuaren lehen egunetan, gerla deiak eraman baitzituen etxetik urrun, Iparralderuntz, irakasle eta ikasle gehienak.




Saint-Pierre, ezkerrean bere arreba Suzeta serora, eta beste anai-arrebak beren ezkontideekin eta ilobekin



Apaizak soldadu

Baionan, 1890ean, itzal handiko jaun apaiz batek, Arnaud Abbadie Larresoroko buruzagiak argitaratu zuen *Aphezak soldado* deitu liburuska, erakutsi nahi zuelakotz ez zutela nehondik ere giristinoek onartzen ahal Frantziako apaiz eta apaizgai guztiak soldaduzka egitera behartu nahi zituen lege berria.

Lege horrek egin zuen zorigaitzez bere bidea eta, egun batez, Pariseko Institutu Katolikoan, aita Tesson jesuita teologia irakasleak aitortzen zuen, haren ustez Frantziako elizak, XIX. mende amaieran, huts gaitza egin zuela bere apaiz



Saint-Pierre

eta apaizgaiak armen hartzera uztea eta, estatu legearen aitzinean amore emaita.

Alta bada, ordu haietan, Frantziako gobernu-buruek gerla gorria zeramaten elizaren eta apaiz, fraide edo serora guztien aurka, baina denbora berean frantses nazionalismo amorratuaren sua berotzen ari ziren erresumako bazter guztietan.

Milafransa bazilarran 29^{oa} - 1,9

Arripiur naita,

O-lurkizko lanak egun esturatu nitet eta
berhala leon, jam apuzen bitalde, tramitazioa
Leizade jaunari izartjeltokan - Danne dunt mitamit
asti eskasuz utzi, bairtat - Ezihurtas dunt hammit
urtato asti kumtaz, lanak yin hammit, eta bittu
Kampoz - Beraz urtato asti egun aurki naita
Eusko lazun artiko bitturiaz
gorazuz habemak

Jean Berrut

ESPAGNE BARRIS 11 rue de la
BAYONNE

Paris, le 21 mai 1871

Monsieur le Ministre,

Je me suis vu en face
de l'ennemi. C'est un
drame qui se joue
dans le monde. C'est
un combat de géants
qui se livre en ce
moment. Les uns
sont pour la liberté
et les autres pour
l'esclavage. C'est
une lutte de la vie
contre la mort. C'est
une lutte de la
raison contre la
force. C'est une
lutte de la justice
contre l'injustice.
C'est une lutte de
la vérité contre le
mensonge. C'est
une lutte de la
liberté contre la
tyrannie. C'est
une lutte de la
paix contre la
guerre. C'est une
lutte de la
civilisation contre
la barbarie. C'est
une lutte de la
humanité contre
l'inhumanité. C'est
une lutte de la
raison contre la
force. C'est une
lutte de la justice
contre l'injustice.
C'est une lutte de
la vérité contre le
mensonge. C'est
une lutte de la
liberté contre la
tyrannie. C'est
une lutte de la
paix contre la
guerre. C'est une
lutte de la
civilisation contre
la barbarie. C'est
une lutte de la
humanité contre
l'inhumanité.

Jean Berrut

ARRAUNTZA BARRIS 11 rue de la
BAYONNE

Paris, le 21 mai 1871

Monsieur le Ministre,

Je me suis vu en face
de l'ennemi. C'est un
drame qui se joue
dans le monde. C'est
un combat de géants
qui se livre en ce
moment. Les uns
sont pour la liberté
et les autres pour
l'esclavage. C'est
une lutte de la vie
contre la mort. C'est
une lutte de la
raison contre la
force. C'est une
lutte de la justice
contre l'injustice.
C'est une lutte de
la vérité contre le
mensonge. C'est
une lutte de la
liberté contre la
tyrannie. C'est
une lutte de la
paix contre la
guerre. C'est une
lutte de la
civilisation contre
la barbarie. C'est
une lutte de la
humanité contre
l'inhumanité.

Jean Berrut

Saint-Pierreren euskarazko gutunak



Saint-Pierreren idazlanez paratutako bi liburu

Hainbestenarekin sukar hori bera nagusitzera baitzoan Alemanen inperioan, gerla piztu zen azkenean, 1914ean, Europako erresuma nagusien artean eta horrela ikusi ziren, erreximenduen lehen lerroetan aitzinatzen Frantziako apaiz gazte guztiak, ofizioz bakegileen artean egon beharko zutenak.

Adineko apaizak aldiz, beren jarraile kartsuen sustatzen ari ziren, aspaldiko teologia ahantzirik eta oihu eginez itsutuki, Manex Hiriart Urrutyk bezala, *Biba Frantzia!*

Gerla Handia hasi orduko, *Eskualduna* astekariaren zuzendari suhar hark berak eskatu zien bere ikasle ohi batzuei igor ziezazkioten, gerlatokietarik, beren berriak. Horra zergatik baditugun, orain, 1914tik 1918raino iraun zuen gerla izigarri haren lekukoaren eskutik, euskara ederrean idatzirik, besteak beste,

Jean Etchepare mirikuaren, Jean Elissalde Zerbitzariren eta Jean Saint-Pierren artikulu sail aberatsak, bedera liburu gotorren doa eskaintzen digutenak.

Luzaz berekin izan zuen Leon Aguerre apez lagunak kondatu digu nola, Saint-Pierrek, kanoi hotsaren artetik, karrikarte zoko batean, lursagar zakuen gainean jarririk, idazluma tzar bat hortz-artean marruskatuz, soldadu lagunak berriak eta haien etxekoak arrenkurak hausnartu ondoan, zarra-zarra, paper mutur baten gainean bere artikuluak zirrimatzen zituen.

Artikulu haiekin *14eko Gerla Handia* izeneko liburua argitaratu genuen, 1998an, *Klasikoak* bilduman, argitalpen horretako arauari jarraikiz.

Zinez gogorak ikusi eta bizi izan zituen orduan gure kazetariak: eriketari gisa hasi baldin bazuen ere gerla, Baionako 49. erreximenduak biltzen zituen anitz euskaldunekin batean, laster, lehen lerroan, lerroburu edo sarjentu ezarri zuten. Aita familiako baten ordeztasunaren lerroei hurbildurik eta kolpatua izanik, aipamen ederrak eta gerlako kurtzea eman zioten aitzindariak.

Bigarren aldikotz Montdidier hiriko inguruetan kolpatua izan zelarik, 1918ko martxoaren 28an, preso hartu zuten alemanek Milafrangako apaiza eta gero ospitale batean ongi artaturik eta sendaturik, preso zeuzkaten apaizgaiekin atxiki Limburgeko hirian, gerla bururatu arte 1918ko azaroaren 11n.

Ez zituen ordea bere harat-honatak, ez are gutiago bere balentriak aipatzen J. S.P.-ek, *Eskualduna*-ren artikuluetan, izaitekotz ere egun orotako bizimoldeaz, euskaldunen fedez eta bertuteaz, alemanekilako harremanez, Jean Etchepare mirikuaren, Jean Ybarnegaray deputatuaren, Paul Durquet apaizlagunaren berriez zuen solas.

Preso lagun eta ikasle izan zuen bada milafrangar apaizak Jean Olhagaray larresoroar apaiza eta honek kondatu zuen nola elkar atzeman zuten bi herritarrek ustegabetarik Alemanian gaindiko zelaietan eta nola, bere adiskide irakasleak Hugo Schuchardt euskaltzale jakintsuaren teoriak aipatzen zizkion edo berdin Massillon predikari ospetsuaren idazkiak euskarara itzularazten.



Saint-Pierre Alemanian preso Olhagarai apaizgaiarekin

Azkenean, menia etorri bezain sarri, teologia irakasleak erakutsi omen zuen bazekiela ere alegilariarena ederki egiten: Limburg hiriko aleman «sobiet»-arekin hitzartzera joan zen, agintari handiaren itxurarekin, bapo guztia bizpahiru gerlako xingolaz apaindurik eta bere preso lagunentzat tren berezi bat antolatzea ardietsi zuen alemanenganik. Hari esker, lagun guztiak Frantziara itzuli ziren bost egun barne.

Asmatzeko da, ongi etorri izan zutela etxekoenganik.



Baionako katedraleko itsasontzia, Erdi Aroko itxurakoa

Gerla ondoko lanak

Gerlatik lekora, eta zenbait aste atsedean harturik, 1919ko bazko biharamunean, Jean Saint-Pierre moralako irakasle alkiak berjabetu zen, Baionako Seminario berrian eta, bizpaula urtez, apezgai alde ederra akulatu zuen euskarazko idazlanetan, hala nola, Piarres Lafitte eta Jean Olhagaray-ez bestalde, Domingo Soubelet, Leon Leon, Xalbat Arotzarena, Landetxeberri, Lanouguère, Lompagueu, Picochet, Gréciet edo Aranart.

Seminarioko irakaslea bera, *Anxuberro* amaren deitura izenordetzat harturik, Iparral-

deko albisteak Bilboko *Euzkadi* egunkarira bidaltzen hasi zen. Hor berean, Euskaltzaindia sortu zelarik, 1919an, erakunde berriaren zirikatzan ere jolastu zen kazetari jostakina, nahiz gero berak orobat onartu zuen euskaltzain urgazle izaitea.

Orohar, *Euzkadin* haren 30 bat artikulu badira, 1919ko maiatzaren 19tik hara doazenak eta, 1922an, urteko artikulu hoberenaren *Kirikiño saria* ardietsi zuen. Gero, haatik, Jean Elissalderi, Jules Moulieri eta Jose Garmendiari utzi zien Iparraldeko berrien emaiteko lana, Bilboko egunkarian.



Gure Herria aldizkariko taldea, Saint-Pierre erdian dela



Gure Herria aldizkarian asko idatzi zuen

Lehenago ordea, 1921ean, Anxuberrok jakinarazi zuen Iparraldeko euskalzale batzuek, gerlari ohien inguruan bildurik, *Gure Herria* deitu aldizkari berri bat, sortzen zutela. Ez dugu erraite beharrik, Oxobi, Zerbitzari, Dassance, Apestegi, Barbier, Dufau, Choribit, Constantin, Blazy, Goroztarzu, Etchepare, eta beste zenbaiten aitzineko, hor zebilela, lehen egunetik, Jean Saint-Pierren izena.

Eta Euskal Herriko historiaren sailari lotu zitzaion hastetik gure lapurtar idazle kartsua: zergatik euskaraz erabili nahi zuen horrelako gai ederra eta zer izanen ziren haren iturburuak argitu zuen aitzin-solasean. Zortzi kapitulu ezin ederragoak eskaini zituen jarraian, aldizkariaren 1921eko eta 1922ko zenbakietan.

Zorigaitzez, Kartagotarren eta Erromatarren batailetara heltzearekin, ez dakigu historiaren ilunbeek lotsatu ote zuten ala beste lan batzuek ito gure idazlea, zernahi dela, 1922ko udazkenean, seminarioko irakaskuntza uztea-



Saint-Pierre *Euskaltzaleen Biltzarrean* hitzaldia egiten

rekin eta, bereziki apezpikutegiko idazkaritza hartzearekin, uko egin zion, hain ederki abiatua zuen sailari.

Handik hara, Saran, Bitiriñan, Domintxainen *Euskaltzaleen Biltzarrean* ohoretan eman hitzaldi aberatsez beste idazlan handirik ez zion Anxuberrok eman ahal izan, behin bederen, *Gure Herria*-ri.

Apezpikutegiko lanengatik bizkitartean, *Eskualduna*-ren zuzendaritza hartu zuen 1925ean, Blaise Adéma kalonjearen eskutik eta hats berri bat eman astekari xaharrari.

Orduan zuzendari berriak argitaratu editorialetarik parrasta bat bildu zuen Piarres Lafitte zenak, bere irakasle ohiaren oroitzapenetan, 1952an, argitaratu *Les meilleures pages de Monseigneur Saint-Pierre* deitu loretegi aberatsean.

Kartagoko apezpiku

1929an ordea, ospatu baitzen Baionan Frantziako Eukaristia Batzar Nagusia, Saint-Pierre kalonjea izan zen biltzarraren kudeatzailea. Lemaitre Kartagoko jaun artzapezpikuak miretsi zituen haren dohainak eta hortik lekora, Erromatik ardietsi zuen eman ziezaioten apezpiku-lagun, Baionako kalonjea.

Baionako katedralean, 1930eko uztailaren 15ean, Gieure Jaun apezpikuak sagaratu zuen Jean Saint-Pierre Kartagoko apezpiku lagun berria eta, hau berehala, Euskal Herria utzirik, joan zen Afrikara.

Tunisiara heldu orduko, hango hizkuntza zaharren ikasten hasi zen apezpiku euskalduna: 1931n igorri zion *Gure Herria*-ri artikulu bat ikusteko euskara eta berberea ez ote zetozen nolazpait enbor beretik.

Bestalde aski ongi baitzekizkien euskara, grekera, latina eta beste zenbait hizkuntza, geroxeago Mediterraneo ekialdeko mintzaira zaharrekin ere konparaketa sakonagoak egi-
tea gogoratu zitzaion, baina zorigaitzez, iker-

keta horiez beste arrankurarik pairatu behar izan zuen laster.

Kartagoko bi apezpikuek ez zuten alabaina, luzaz elkar aditu eta zaharrak lanik gabe utzi zuen bere lagun gaztea. Honek orduan, apezpiku lanik ez izanez han gaindi, Gorduseko apezpiku izen umila jantzirik, asma daitekeen bihozminarekin etxera itzultzeko xedea hartu behar izan zuen eta, 53 urtetan Milafrangara erretiratu zen, 1937an.



Eukaristia Biltzarra antolatu zuen taldea,
Saint-Pierre idazkari dela



Baionako Eukaristia Biltzarra. Hor hautatu zuen Saint-Pierre Kartagoko apezpikuak bere laguntzailtzarako



Kartagoko katedrala, orain kultur etxe bihurtuta

Iheslarien laguntzaile

Euskal Herriaren parterik handiena gerlan sartua zen ordukotz eta Gernikako hiri saindua ere aireko etsaiek sunsittua zuten. Laster II. mundu gerlak mundu osoko bazter gehienak hunki beharrak zituen eta, hainbeste haurride, ahaide, adiskide edo herritar arruntek hain maite zuten gizon miresgariak, bi Euskal Herrien gaisetetik itsasoraino hegadak zabaltzen dituzten mendi lerro zoragarrien aitzinean iragan zituen bere biziko azken 14 urteak. Bazterturik bezala izanagatik, ez zuen bizkitartean ez etsitu ez uko egin:



Sain-Pierre apezpiku jantziekin

Etxelekuko sortetxearen auzoan, Jainko Onak aterpetzat begiratu zizkion bere Joastipiri-ri, gaur errepedeak jana duen Ttipienea eta Euskaldun Txorien edo Euskal Herriko haur eta gazteen biltxoko izana den Argizabal.



Saint-Pierre apezpiku berria Uztaritzeko ikasle ohiekin



Saint-Pierre euskaltzale taldearekin

Zer den haatik, izen batzuen adierazpen misterioetsua! Anxuberro bera ez balitz lehenago konturatu zeruko zeinu direla izen batzuek, *hazkurri* direla hitz horiek, erranen zion, seguru, Oxobi adiskideak.

Gogoratzen gara bada zein nahasiak eta gogorrak izan ziren urte haiek, gure Herriarentzat eta gure Herrian, beren fede zaharrea ongi finkatuak zirela uste zuten zenbait fededunentzat bereziki. Ez ote zituen Ama Elizak berak kondenuatu euskaldunak eta haien artzainak?

Ez baitziren haatik Toledon, Salamankan edo Erroman bakarrik baina Iruñean, Bilbon edo Baionan berean ere gora mintzo kurutzedunen buruzagiak edozein euskal abertzale, apez, fraide ala laiko, eskumikatzeko eta sutartzeko prest, Eliza Amaren izenean.


Orduan zuen Iruñean Irigaray *Larreko* mirikuzenak segetuan idatzi mende erdia beranta-

go bakarrik haren bilobak argitaratuko zuen *Gerla urte*, *Gezur urte*, oroitzapen liburu lazgarria.

Orduan ere Donibane Lohizunen zuen jalgi bere deiadar samina gure gazte lagun Iratze derrek: *Zorigaitzeko Euskadi!*

Beharrik izan baitziren bakan batzuek Eliza Sainduaren ohorea zaindu zuten kristau argi eta bihozduen batzuek, hala nola, euskaldunok agian ahantziko ez ditugun Maritain eta Mauriac, Mounier eta Bernanos, Bergamin eta Semprun bezalako izenak. Bai eta ere Feltrin, Salièges, Journet, Théas, Mathieu, Mugika, Théas, Bernadot, Sturzo, edo beste kardinale, apezpiku, apaiz edo fraide bipil zenbait! Hauen artean jarri behar dugu, dudarik gabe, egun ilun haietan Jainkoak euskaldunentzat berezirik zeukan Jean Saint-Pierre Milafrangako apezpikua.

Nolako ikus bestela, 1938ko irailaren 15ean, *Euskalzaleen Biltzarrak* bildu zituelarik Domintxaineko elizan bi eskualdetako ordezkariak: Erreketeen adiskideak, Bérard, Delzangles eta Ybarnegaray batetik, Gudarien lagunak, Ciaurriz, Hernandorena, Orixe eta Basarri bestetik, eta euskaldun oroz gaitzerraiten zelarik bazter guztietan, Saint-Pierre apezpikua mintzatu zitzaigula, lehenago Axularrez edo Bitiriñako Abbadi handiaz egin zuen kar berarekin, zertaz eta, euskaldunen dohainez; goraiatzeko eta mendekatzen



Apezpiku sinadura

zituela arbasoen lurra eta ohiturak, haien zuhurtzia eta zuzentasuna, gure etxea eta fedea, bai eta zaindu behar dugun gure hizkuntza, euskara bera.

Ondoko urtearen hatsarrean *Gure Herria*-ri hats berri baten emaita eta hilabete oroz aldizkaria argitaratzea proposatzen zuen oraino Saint-Pierrek. Baina handik laster, Espainiako gerla bururatu orduko nolazpait, hasten zen berriz II. mundu gerla, zenbait hilabete barne Frantziako armaden ustegabeko sunsiketa ekarri zuena eta behingotz alemanen nagusitasuna Iparraldean.

Aski hurbiletik ezaguturik, 1940-1945eko urte haietan, Milafrangako jaun apezpikua erran dezakegu isilik egon baldin bazen ere neholako artikulurik argitaratu gabe, beti entzun dudala bere lagun gerlari ohiekin zera-biltzan solasetan, amore emaiten ez zutenen alde mintzo eta askatasun eguna etorriko zitzaiagula ziur eta fio.

Nafarroan itzuli bat egiteko parada izanik, 1942-43ko ikasturtean adibidez, ohore handitan hartu omen baitzuten Iruñeako seminarioan eta apaizgai batek euskaraz agurtu baitzuen lagun aitzinean, euskaldun apezpikuak ez zezakeen sinets apaizgai hori euskaldun berria zela eta Zarrakazteluko semea, hots, guhaurk geroago ezagutu genuen Martzelino Garde zena. Hor ikusten zuen Saint Pierrek ez zela beraz galtzekotan *Lingua Navarrorum*, Nafartarren Hizkuntza zaharra!

Euskal prentsaren sustatzaile

Baionan berean aldiz, istudiant gazte batzuek *Aintzina* aldizkaria berpiztu nahi izan genuelarik, berehala gure alde agertu zen eta jarraian nihonek prestatu nuelarik Euskal Herriko erlijioaren historia xume bat, berak eskaini zidan aitzin solasa.

Alemanak, 1944an, gibelera joaiten hastearekin, Xalbat Arotzarenaren eta honen lagun *Eskualduna* isildu behar izan baitzen, aspaldiko urteetan hartua zuen bide okerrarengatik, etsaiari ihardoki ziotenek astekari berri bat sortu nahi izan zuten Piarres Lafitte, lehengo *Antzinaren* asmatzailearekin eta hauek bildu ziren Saint-Pierre irakasle ohiaren inguruan *Herria* astekari berria abiatzeko gisan.


Eta berdin gertatu zen 1950ean, *Gure Herria* berriz argitaratzeko xedea hartu zelarik.

Anartean, 1948ean, Biarritzen, *Eusko Ikaskuntzaren* Batzar Nagusiari bere itzala eskaini zion Jean Saint-Pierre apezpikuak eta, ondoko urtean, erakunde beraren lehendakaritza onartu zuen.

Afrikako egonaldian ikasi arabeen eta berbeeren hizkuntzak baliatuz egin ikerketen berri eman zuen bestalde, lehen *Gure Herria* bezala, Kartagoko apezpiku lagun ohiak, bere adiskide aita Barandiaranek argitaratzen zuen *Eusko Jakintza* aldizkari berrian, baina aitortu behar dugu euskararen etorkiaren gai minbera hori aipatu orduko harrotu zirela bazterrak, eta Karl Bouda izeneko euskalari alemanak

gaizki hartu zituela filologiaren misterioak aski barna ikertuak ez omen zituen artikulugilearen solasak.

Azkenean, Jean Saint-Pierre apezpikuak izan zuen, hil aintzin, Guillaume Gréciet Uztartizeko seminarioko buruzagiarekin, seminarioko kapera berriaren fagoretan Hego Ameriketako euskaldunei ikustaldi oroigarri baten egiteko parada.



Saint-Pierreren sinadura

Eta gero berak kondatu zuen xeheki zer ongi etorria egin zieten Uruguaiako, Txileko eta Argentinako hainbeste herritarrek eta zer atsegina izan zen harentzat euskaldun haurri-



Zorionak eman dizkion Lafitteri idatzitako gutuna



Argizabal, Saint-Pierre apezpikuak erretiratutakoan beretzat egindako etxea

de horien guztien bizimodua hurbiletik eza-
gutzea. Nola ez zitzaion berari gogoratuko,
mende erdi bat lehenago, beste hainbeste
euskaldun bezala, Milafrangatik Ameriketako
bide horien beren egitera behartu zituela
bizibeharrak Etxelekuko Maria, Josep eta
Batista hiru anai-arreba maite zenduak?

Zorigaitzez, handik landa, gaitzak jo zuen gure
Euskaldun bidegile handia eta, egun laburrik
barne, eraman. Ezen, 1951ko abenduaren

18an hil zen, Baionako dominikar seroren
etxean, Joasttipi Saint-Pierre *Anxuberro*, Gor-
duseko apezpiku zena.

Biharamunagoan Baionako katedralean, To-
losako Salièges kardinale famatuaren aitzine-
an, Klement Mathieu Akizeko apezpiku haz-
pandar adixkide minak eman zuen ehorts
mezako hitzaldi hunkigarria. Geroztik haren
hezurrak lo daude Milafrangako elizaren
alartzean, *Argizabaleko* egunaren zain.



Saint-Pierre apezpikuaren hilobia Milafrangako elizaren atarian

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Saint-Pierre Saint-Pierre familia*
- *Piarres Xarriton*
- *Auñamendi argitaletxea. Enciclopedia General del País Vasco*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2003ko urria

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

Inprimaketa: Gráficas Varona, S.A.
Polígono «El Montalvo», parcela 49 - Salamanca

ISBN: 84-457-2027-9 (Lan osoarena)
84-457-2029-5

L.G.: S-***-2003